

6 mantangorri



AZOKA

## LIBURUA

**Izenburua:** 'Tatsu Nagataren piztia handiak'.**Testuak eta marrazkiak:** Tatsu Nagata & ThierryDedieu. **Edukia:** Zazpi piztiari buruzko informazioa.**Orrialde kopurua:** 192 orrialde,  
koloretan. **Argitaletxea:** Ttartalo.

## Itziar Irastorza

TTARTALO ARGITALETXEKO ARGITARATZAILEA

«Ezagutza eta dibertsioa  
uztartzen dira, eta,  
hala, haurrak erraz  
bereganatzen du edukia»



Natura maite du Tatsu Nagata zientzialariak; natura eta animaliak. Natur zientzietan aditua da, eta gusuko dituen animalia horietako zazpiren erretratuak eta azalpenak ematen ditu kolorez eta ilustrazio ikusgarri beteriko liburukotean. Animalien marrazki ikusgarri jantziak datozen zientzialariak animaliei buruz haritu dituen oharrok. Thierry Dedieu idazleak sortu du animaliei buruz asko daki Tatsu Nagata zientzialari japoniarra.

**Animalia liburu bat da,  
baina ez betiko animalia  
liburu bat. Zerk egiten du  
berezi?**

Ez, ez da ohiko ezagutza liburu bat, informazioaren pisu nagusia ez baitago testuan, irudietan baizik. Marrazkien eta testuen tonu umoretsua dela-eta, ikastea dibertigarrria izan daitekeela frogatzen duen liburu horietako bat da, gainera. Beraz, ilustrazioen presentzia nabamenak eta edukien izaera dibertigarriak egiten dute berezi liburu hau.

**Zeintzuk dira Tatsu  
Nagataren piztia handiak?**

Guztira, zazpi dira Tatsu Nagata

zientzialari jenialak liburuan aurkezten dizkiung animaliak edo piztia handiak: balea, krokodiloa, gorila, hartza, otsoa, lehoia eta marrazoa.

Japoniar ikertzailea dugu Tatsu Nagata, naturaren zientzietan aditua, eta hark ematen ditu zein baino zein handiagoak eta ikusgarriagoak diren piztia handi hauei buruzko azalpenak.

**Zein informazio ematen  
da animalien inguruan?**

Informazio zehatza eta laburra ematen da, apunteak dira. Orrialde bikoitz bakoitzean esaldi bakarra azaltzen da, animalien ezaugarri nagusiak, berezitasunak, haien buruzko bitxikeriak azpimarratz. Ezagutza eta dibertsioa uztartzen dira, eta, hala, haurrak erraz bereganatzen du edukia.

**Piztiak aurkezteko modu  
berezia du, ezta? Oso testu  
gutxi du liburuak, eta  
marrazki ikusgarriak dira.**

Liburuak orrialde asko ditu, bai, baina testu gutxi eta ilustrazio bakoitzak bi orrialde hartzen ditu, oso-osorik. Animalia bakoitzari dagokion atala istorio independente bat bezala irakurtzen da, eta Tatsuren komentario barregarriek ematen diote atal bakoitzari «urrezko» sarrera eta bukaera.

**Nolakoak dira egin dituen  
marrazkiak?**

Oso irudi koloretsuak eta deigarriak dira egileak egin dituenak, soilak dira, haurrek egiten dituztenen antzekoak, eta, beraz, haurrek erraz identifikatzen dituztenak. Lan fina eta adimentsua da, gráfikoki oso originala.

**Zazpi animaliaren  
aipamenak eta esaldi solte  
batzuk baino ez ditu, baina,  
hala ere, ez da liburu txikia;  
ia 200 orrialde ditu!**

Liburu mardula da, 192 orrialdetan 100 marrazki inguru biltzen ditu. Liburu handia da, beraz, Tatsu Nagata ikertzaile japoniarak eskaintzen diguna; munduko animalia handienetariko batzuk hobeto ezagutzeko, baita gaztetxoei natura maitatzen eta babesten erakusteko ere.